

1. BALOREZKO PROPOSAMENA



Balio proposamena enpresa batek duen estrategia da, eta bertan produktu edo zerbitzuak bezeroei eskaintzen dizkieten abantailak transmititzen dira. Bestela esanda, horrek bereizten du enpresa bat bere lehiakideengandik. Balio proposamena bi talde handitan bana daiteke:

- Kuantitatiboak: produktu edo zerbitzu baten prezioari edo eraginkortasunari buruzko datuak dira.
- Kualitatiboak: produktuak sortzen dituen esperientzia eta emaitzak nabarmentzen ditu.

Gure proposamenaren helburua teknologiaren aplikazioa larrialdietan da, batez ere eskularru adimendunak erabiliz. Hauek sentsoreak dituzte eta pazienteak ukitzean hainbat bizi-konstante neurtzen dituzte, esaterako gorputzeko tenperatura, bihotz-erritmoa eta oxigeno-saturazioa. Neurtutako datuak momentuan bertan bidaltzen dira tableta edo monitore batera, informazioa denbora errealean eskainiz.

Produktu hau larrialdietarako sortu da, diagnostiko eta tratamendu azkarra eta eraginkorra ahalbidetzeko, eta arreta mediko optimoa bermatuz. Gainera, eskularruak ergonomikoak dira, arinak eta hipoalergenikoak, erabiltzailearen erosotasuna kontuan hartuta. Gure proposamenak denbora eta gastuak murrizten ditu, medikuei tresna fidagarri eta modernoak emanez, berrikuntza, abiadura eta, batez ere, kalitatea batzen dituena.

Gure enpresak balio kuantitatiboak eskaintzen du batez ere, entregatzeko eskaerak askoz azkarrago egiten ditugulako, 24 ordu baino gutxiagoan esaten diguten lekura iristen gara. Gainera, gure enpresak, produktu berritzaile bat eskaintzen du, Eskularru jakitunak, larrialdi egoeretan, benetan abantaila asko emango diguna. Konstante bitalak hartzeko denbora murrizten du, horrela, diagnostiko azkar bat egitea ahalbidetuko du. Eskularru hauek, garbitu, esterilizatu eta berriz erabili ahalku

ditugu. Balorea ez da kuantitatiboa baina lehen aipatutako ekintzak eginez, produktua amortizatu ahalko dugu.

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.

-STARTINNOVA plataformako materiala.

-<http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>

- Logoa: <http://www.chatgpt.com>